

JOSE AGERRE

EUSKALTZALE ETA ABERTZALE BATEN OROIMENEZ

Jesús P. Chueca

Orain dela ehun urte Iruñian sortu zen gero euskal letretan eta gatazka politikoetan “Gurbindo” izenordea ezaguna egindoa zuen gizona, José Agerre Santesteban, hain zuzen ere. Hau dela eta, dagoeneko zenbait erakunde, hala nola Euskaltzaindia, Eusko Alkartasuna... idazle eta abertzale honen oroimenez ekitaldi eta omenaldi batzuek prestatzen ari dira. Historialarien aldetik ere, gure aldizkariaren orrialdetan Jose Agerreren bizitzari buruzko zertzelada batzuek ematea oso egokia iruditu zaigu, Nafar historian barrena izan diren eremu eta zirrikitu ezezagun guztiak berreskuratzea eta ikertzea biziki derrigorrezkotzat jotzen dugulako.

Jose Agerre 1889 garreneko urte amaieran Iruñean munduratu zen, Eulogio Agerre eta Benita Santesteban gurasoak izan zituelarik. Aita lanbide aldetik zurgina zen eta Aezkoako Arian sortutakoa izanik euskalduna. Hala eta guztiz ere bere emaztea erdalduna izatearren Agerretarren etxean gazteleraz mintzatzen zen (1). Iruñiako euskal idazleak euskerarekiko izan zuen grina, bertze hizkuntzekiko eduki zuen zaletasunarekin batera, napar apezgaitegian egindako ikasketetan barrena piztu zen berarengan. Ikastetxe honetan grekera eta latina ikasi ba zituen ere, urte batzuren burura frantsesa, inglesera, alemana, italiara eta euskera mintzaiteraz maixuki jabetu zen.

Bere lehen meza izango zena emateko gutxi faltatzen zitzaioala alde egin zuen apezgaitegitik. Ordurako Jose Agerre Iruñiako abertzaleekin harremanetan zegoen. Horrela 1913 garren urtean, euskal nazionalismoaren hazkundea zela medio, “Centro Vasco” izenarekin Iruñiako San Jose plazan kokaturik zegoen jeltkideen egoitza, lekuz aldatzea, Zapateria karrikara hain zuzen ere, erabaki zutenean, Manuel Aranzadi, Santiago Cunchillos, Felix Garcia La rache, eta bertze abertzaleekin buruzagi taldea osatuz idazkari bezala agertuko zaigu (2). Hortik aitzina Nafarroan euskera suspertzearen edo/eta euskal nortasunaren alde bultzatutako edozein ahaleginean aurkituko dugu beti J. Agerre.

Hala nola, 1918. urtean Eusko Ikaskuntzak Oinatin ospatutako biltzarraren erabakian jarraituz eta Araba, Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiko lau aldundien babespean Euskaltzaindia sortu zenean, Resurreccion Azkue, Arturo Campion, L. Eleizalde, Julio Urkijo euskaltzainak izendatu ondoren, erakunde euskaltzalea osatu behar zizutuzten artean, Nafarroari zegokion ardura “Gurbindo”ri eman zioten. Era berean, Eusko Ikaskuntzak 1932. urtean Iruñean bere ordezkartza ireki zuenean napar idazlea idazkaria izendatu zuen.

Baina Euskalherri osoko erakundeetaz arduratzeaz gain Nafarroan Errepublikako urteetan euskal gogo eta nortasuna berpizteko martxan ipinitako ekintzetan hala “Euskaltzaleak” nola “Euskeraren Adiskideak” elkarteek bultzatu zituzten “Euskeraren Eguna” festetan edo “Escuelas Vascas” deitutakoetan hain zuzen ere parte hartuko du.

Aktibitate hauetatik kanpo, urteak igaro ahala, Eusko Alderdi Jeltzalearen baitan gero eta ardura haundiago hartuz joan zen, 1935. urtean Napar Buru Batzarraren gailurrera ailegatu arte. Urte honetatik aurrera NBBko buruzagia izanik Naparroako jeltkideek Iruñian argitaratzen zuten “La Voz de Navarra” egunkariaren zuzendaritzan ihardun zuen. Ordurako Jose Agerrek bertze aldizkari abertzaleen orrialdeetan garai hartako aferetaz bere eritziak idatziak zituen. Artikulu hauetan mementuz mementu gako politikoetako inguruan gertatzen ziren gatazkak ikuspuntu abertzale batetik argitzen saiatzen zen. Hona hemen, estatuto vasco-navarro zela eta, zer zioen Nafartzaletasunari buruz:

“1932 garreneko Ekainaren hemeretziko bezperetan, Estatutoaren aurka adierazi zuten argudio handienak Janok bezala aurpegi bikoitza zeukan. Haundikiei Nafarroako nortasuna desegiten zela erraten zieten bitartean jende apalei estatutoa garestia zela sinetsarazten zieten. Geroxeago behin eta berriro erakutsi izan den bezala eraso hauek gezurrezkoak ziren. Ez zen egia, ez, nortasunaren ezabatzea. Zeren proiektuaren bigarren artikuluan azaltzen bait zen lurralde bakoitza, hots Araba, Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaia autonomikoki aginduko zirela, gaur egun duten autonomia eta gehiagorekin. Horretarako Estatutoaren eskubideekin hobetuko ziren erregimen eta “berezko” antolamendua “askatasunez” erabakiz. Halaber foru eta nortasun honen defentsa Estatutoaren artikuluen bitartez sendotuko zen aipatutako lurraldeen autonomia erreferendumatik kanpo gelditzen zelako”. Artikuluz Artikulu Euskadi osoko Estatutoaren abantailak azaldu ondoren “Gurbindo”k zalantzan jartzen zuen Nafartzaletasunaren jokabidea erranez:

“Nabarrismoaren nahia egiazkoa izanen balitz, Estatuto vasco-navarro delakoaren porrota ikusi ta gero, berehala napar estatutoa egingo luketeela edozeini bururatzen zaio. Baina ez zen horrelakorik gertatu eta Estatuto orokorra hondoratu ondoren napartzaleek ez zuten deusik aurrera atera. Zaila da bururatzea nafar nortasunarekiko hain sentibera direnak eta euskal anaitasuna dela eta hain muturbeltz direnak, hegoaldeetik datozkigun gehiegikerien aurrean orain eta beti kontraekintzarik ez edukitzea. Makina bat kontraforu eta irain sarritan eredu zko etsipenarekin onartuak izan dira hemen. ¿zer argudiatzen dute nafar nortasunez bete beteta dauden jaun horiek? ¿nun dago bere nafartzaletasun neuralgikoa? Ikustekoa da fenomeno hau. Aipa dezagun euskal anaitasunaren ideia eta bere ondorengo hurbiltasuna, jaun hauen nerbioak mueile menderagaitzak izanen balira bezala saltu egingo dute. Hegoaldek irautzen gaituztenean, gure napar eta gizon duintasunari mina egiten diotenean, itunak gutiesten kontraforu aunitz egiten dituztenean, orduan etsipen espainolzalea! Gaur egungo Naparroako agintariek badakite beti egon dela naparren gogoan bere nortasuna nabarmentzeko joera haundi bat. Baina hauek espainolismoaren baitan napar arima gesaltzea bilatzen duten bitartean euskaldun den oro gorrotatzen dute, euskalduna den guztia nahita nahi ez nazionalismoa bait da eta Nafarroako nortasunaren funtsezko balorea den euskal izaeran oinarritzea suposatzen duelako” (3).

Napar abertzaleen eritzi politikoak plazaratzeaz gain euskeraren tirabiretaz eta II. garren Errepublikako euskal pizkundea deitutakoak antolatzen nahi zituen inizatiba guztietaz izkiriatu zuen. Esate baterako, 1932 garren urtean euskal Unibertsitatearen aldeko mugimendua hasi zenean “Gurbindo”k bere aburua azaldu zuen erranez gai honetan funtsezkoena ez zetzala kokapen geografikoan edo egitura fisikoan, bere izpirituan baizik. Jaiotzeaz zegoen unibertsitatearen oinarria euskal gogoan egitaratu eta bermatu behar zen. Honela zioen “Amayur” aldizkarian idatzitako artikuluan batean:

“Euskal izpiritua unibertsitatearen mugimendu guztiak eratu behar ditu eta lokalak edo eskeintzak zurikatzaileak izan arren ez da edozein moduan hasi behar. Doktore eta lizentziatu onak ateratzea garrantzitsua izanen da, baina euskaldunak, sakonki euskaltzaleak aterako ez balira, Unibertsitateak ahaztu egingo luke berari dagokion oinarrizko xedea. Euskal herriaren gogoak gorpuztu behar du unibertsitatea. Hemendik abiatu behar dugu. Bestela ahalmen gehiago edo gutxiagorekin Unibertsitate bat eduki dezakegu, espainole erara, unibertsitate bat gehiago, euskaltzaleatasunaren aire puxka batekin, baina euskal Unibertsitatea oso urrun geldituko zaigu, agian orain baino urrunago zeren gaur egun, bahintzat, gure etxean euskal unibertsitatearen kontrako eraginik ez bait dago. Gainera unibertsitate ofiziala herrian sortutako unibertsitate baten ukapena dela ezin dugu ahaztu, herriaren nahia unibertsitate libre batean soil soilik gorpuztu daitezke larrik. Hau da, libre eta duin den unibertsitate ororen egiazko abiapuntua, bere eginkizunen garapenean estatu aldetik inolako eraginpean egon ez dadin. Euskal unibertsitatea ez da honela izanen, ez bada onartzen bere aktibitate esparrua baldintza morroinik gabe eta askatasun osoz antolatu daitezke (4).

Dena den eta denbora igaro ahala, bertze abertzale napar askok bezala, nazionalismoa ildo berriei hurbildu nahiean politika kulturalista batetik landa zeuden bertze arazoetaz gero eta kezkatuago izanik, “Gurbindo”k gori gorien zeuden zenbait problematikaz idatziko du. Nafarroako herrilurrari zegokionez honako hau kaleratu zuen, “Amayur” aldizkariaren bitartez:

“Napar herrian foruen aldeko nahia betidanik izan den bezala, bere nekazarien artean ere herri lurraren irritsa beti izan da eta are gehiago, gura hau ez da muturrean dagoen alderdi batekoa, egiazko herri alderdi guztien baizik. Lur amankomunetatik atera diren lur guztiak herrira itzuli behar dira, mugimendu honi erretzasun eta orenen leguntzak eman behar zaizkiolarik. Eginbeharra honetan diputazioari dagokio ardura garrantzitsuena eta gaizki dabilta afera hau kanpora eramena nahi dutenak berezko agintea zokoratuz. Hona hemen nola tradizio bikain honetan lotzen diren jutziziako den arazo haundi hau zeinaren irtenbideak gizarateko bakea erakarriko du eta diputazioaren alde afera honetan gaitasuna bereizten duen irakaspede forala jatorrena” (5).

Errepublikako azken urteetan NBBko ardura batzu utzi gabe “La Voz de Navarra” zuzendaritzan aritu zen batipat. Egunkari honen egoitzan bertan zegoen, Iruñean 1936ko gerla hasi zenean. Uztailaren 19ko goizean, napar falangistek “Arriba España” argitaratzeko asmoz egunkari abertzalearen makina eta tresna guztiak bereganatu zituztenean J. Agerre zauritu eta atxiloturik eraman zuten.

Lekukotasun guztien arabera, mespretxu eta gehiegikeri aunitz pairatu ba zuen ere, bizirik jarraitu zuen altxamendu eta ondorengo errepresioaren aitzindari garrantzitsuenetariko baten, hau da, Benito Santesteban, “Santero”ren ahaidegoari esker (6). Hala eta guztiz ere, hurrengo urteetan, askotan giltzapeturik egon zen. Gerra bukatu baino lehen, euskal abertzaleek, presoen aldeko eta mugaz bertaldera informazio eta jendea pasatzeko, sare bat antolatu zutenean bertze jeltxide batzuekin, haien artean Modesto Urbiola, Bittori Etxeberria, F. Ariztia, F. Ezkurdia naparrak zirelarik, atxilotua izan zen. Gauza bera gertatu zitzaion, 1946 garren urtean, Naparroan erresistentzia lanetan iharduten zuten talde politiko guztiek sekulako errepresio eta harrapaketak jasan zituztenean (7).

50. hamarkadatik aurrera eta Frankismoaren suntsipenaren itxaropenak gero eta murriztagoak izanik, aktibitate politikoak itzaltzen diren heinean lana eta ekintza kulturaletan berriro kokatu ziren abertzaleen saioak. Egoera honen ondorioz, “Gurbindo” idazlanetara jarri zen erabat eta mugaz bertaldeko hegoaldeko ziren aldizkari gehienetan, “Euzko Gogoan”, “Gure Herria”n, “Egan”n, “Oleri”n, ... argitaratuko ditu bere izkribuak. Zerabiltzen gaien artean erlijiosoak nabarmentzen ba dira ere (Ostirale Deuneko mixterioak, Garizuman Gogartez, Jaun Doni Laurentziren jai egunean...)

baita euskal kulturarekin zer ikusirik zeukaten ekintza edota pertsonaiak goratuko ditu bere orrialdeetan. (Ziga tar Xabier, eusko margolaria; Ignacio Larramendi olerkaria; Erriko danzariak...) Orokorki, erraten ahal dugu, bai prosaz idatzirikoetan bai saio poetikoetan, euskal nazionalismoak herriaren erreferentzi kulturaletzat hartzen zituen festak eta ohiturak, hala nola, Santa Agedaren kantuak, Donibaneren suak, Aralarreko besta berria,... eta abar isladatzen saiatzen zela bere baitan zeraman erlijiotasunari Euskalherriko usarioen ondarea lotzen ziolarik

Idazle lanetatik at Naparroako bertze euskaltzaleekin batera, Pedro Diez de Ulzurrun, Luis eta Aingeru Irigaray, P. Tirapurekin, alegia, "Principe de Viana" erakundearen bane "Euskeraren aldeko Saila" antolatzeari ekin zion 1957, tik aurrera. Urte hartan, Diputazioak berea egin zuen jende ospetsua batek euskeraren alde sinatutako manifiesto bat eta nafarren mintzairaren aldeko saila sortzea erabaki zuen. Horrela zioen aurkezpen agiriak: "Naparroko Diputazioa ikusten ari da itzkuntze gusietan ederren eta arrigarrien dan Euskera, jakintsu aundiak diotenez, Naparroko euskal erriak beren euskal izkuntza beren etxetatik kanpora botatzen ari dirala. Galtze negargarri au gerta ez dedin, dei egiten die euskeraz itz egiten dakitenei jarraitzeko euskeraz hitz egiten, beren umetxoei erakusten eta egifialak egin ditzaten euskera zabaltzen. Euskeraren ikasbide, bizkortze eta iraupenerako lan egingo duen sail berri bat Institución Príncipe de Vianan badu Diputazioak. Sail ontan lan egiten dutenak pozik lagun egingo die euskaldun guziei sendotzen eta iraupenerako lanetan" (8).

Pedro Diez de Ulzurrun arduraduna izendatu bezain laister, lanean hasi ziren. "Guk pentsatzen gendun hasi behar ginela urtez urte Nafarroako geografia osoa edo gutxienez Nafarroako euskal zonaldea herriz herri bisitatzen eta han bizi ziran eskola adineko euskaldun guziak esaminatzen eta gero zekitenei... euskeraren erabilpena prestigiatzeko dirua eman. Hasi ginen lehendik, Irurtzundik Altsasurainoko herri guztiak bisitatzen. Garai hartan euskeraren alde agertzea peligrosoa zen eta apezzen bidez, herri euskaldun gehienetan euskaldunak ziren, jakin genduen euskaldun guztien izenak eta abizenak. Agerre gurekin etortzen zan esaminatzera eta ospatzen genituen besta guztietan, bertsolari txapelketan eta abar... beti egoten zen. Horregatik, noizean behin, argitara ematen zuen euskaraz egindako artikulu batzu, poesiak. Bere euskera oso landua zen, baina denak uler dezaten behean bere neologismoak jartzen zituen" (9).

Horrela jarraitu zuen bere ustegabeko heriotza ailegatu arte, 1962 ko urriaren 19ean, hain zuzen ere. Egun berean "Diario de Navarra"ren zuzendaria zen Raimundo Garía "Garcilaso" hil zen ere. Azken honen bizitza eta elizkizunetaz ondorengo egunetan napar egunkarietan informazio ugari azaldu zen bitartean, "La Voz de Navarra"ren zuzendari ohiari buruzko ixiltasuna ia ia erabatekoa izan zen. "Gurbindo"ren neke, asmo eta lanei buruzko berriak eta oroimenak kanpoko eta atzerriko aldizkari batzuetan beranduxeago agertu izan behar zuten (10). Halare, Naparroan bertan ere, berak eskertuko lituzkeen bertsu batzuen bidez omenaldi xume eta bikain etorri zitzaion. Hona hemen, bertze batzuen artean, baztandar den Felix Iriartek eskeinitakoak:

*Jose Agerre atera zaiku
bere lagunen artetik
Euskararentzat aita ona au
lekutu da bai ondotik.
Yaun zerukoak deitu dio
Igan daiela mundutik
Ez da dudarik Jose Agerre
Begira dago zerutik.*

*Agerre Yauna nola daukaten
ongi sartuta goguan
Euskera zaintzen ibilia da
Aita on baten moduan.
Yaungoiko orrek deitu dio
An dago bertze munduan
Yesus maiteak gerta dezala
Berakin batean zeruan.*

*Agerre Yauna eriotz beltzak
eraman du bat batian
eriotz orri ezetz erterik
ez dago bizkitartian.
Berdin sartzen da Jauregiko urtegiatan
nola mendiko ikatz beltzen artian.
Bañan Agerre ikusiko dugu
Josafatera gatian.*

*Yaungoikoaren sema ona zen
Ark eraman du beregana.
Goiz edo berant bate bearra
Yaunak emandako ordena.
Ez da dudarik sarituko dio' Munduan egin duen lana.
Zeruan daien erran zaiogun
Denek Aita Gure bana (11).*

Gaur egun, bere jaiotzatik ehun urte betetzen direnean eta “Gurbindo” bezalako abertzaleei esker Naparroan euskera eta Euskalherriarekiko sentimendua gero eta indartsuago denean, orduak jo du euskaltzale hauei, beren oroimena gogoratuz justizia pixka bat egin diezaiegun.

NOTAS

1. Jose Agerre Celayaren lekukotasunaren arabera.
2. Archivo Gobierno Civil; Registro Asociaciones.
3. “Euzkadi” egunkaritik itzulitakoa
4. “Amayur” aldizkaritik itzulitakoa, 1932.ko otsailaren 27koa.
5. “Amayur” aldizkaritik itzulitakoa, 1932ko otsailaren 13koa.
6. Jose Agerre Celayaren lekukotasunaren arabera
7. O.P.E. aldizkaritik. 1946.ko Ekainaren 22koa.
8. Ikus, DFN, Institución Príncipe de Viana, Sección para el fomento del vascuence. Imprenta Zubillaga, Pamplona, 1957.
9. Pedro Diez de Ulzurrunen lekukotasunaren arabera.
10. Ikus, “Alderdi”, 1962ko Azarokoa; “BIAEV”, 1962ko 51 zenb.
11. Ikus, “Nafarroako Bertsolarien Txapelketa”, Euskeraren Aldeko Saila, Iruña, 1963.